

ARANA, Anuntxi
Hilak gure artean. Agerpenak eta jai-eskeak

Donostia : Elkar argitaletxea, 2015
138 or. : ir. ; 24 cm
ISBN: 978-84-9027-334-0

Hilak gure artean liburuan, Anuntxi Arana beste mundukoen etorrerarekin hangoen eta hemengoaren artean sustatzen diren harremanetaz mintzatzen da. Gai honetan arakatzek estrategikotzat jotzen du, haren bitartez beste aspektu asko azaleratzen baitira, hala nola, erritu, mito eta jai ugari. Hauek, esango du egileak, izaera didaktikoa dute gizartearentzat; norberak arima herratuekin izan duen esperientzia eta horren konponbidea kontatuz eta errepikatuz agerpenak nola ekidin eta hauen aurrean nola jokatu irakatsiz. Aranak egin-dako azterketa honetatik ondorioztatu daitekeen moduan, edozein unetan, nahiz data fin-koetan heldu daitezke hil ezagunak beren ahaide edo lagunengana. Orduan, herriko kondairek estualdi horretatik onik ateratzeko eta zenduen eskaerak asebetetzeko ezagu-tza eskeintzen dute. Hilak ezezagunak direnean berriz, itxura lainotsuak hartzen dute, eta ez da erreza jakitea nondik datozen, orduan jendearengan ikarak eta ihesak leku handia-goia hartzen dute. Laburbilduz, hilen etortzea da liburuaren ardatz nagusia eta bereziki hauen inguruan biltzen diren hartu eta emanak. Hilei opariak egiten zaizkie zenduak jen-dartearen parte direlako eta gure mundutik hurbil daudela pentsatzen delako. Hau libu-ruaren interes zentrala izanez, berari munduan zehar aurkitutako egoera eta erantzun anitzen etnografiak biltzen ditu, hilen agerpenei aurre egiteko ezinbesteko gidaliburuan bilakatuz.

Hilak gure artean, beste ezer baino lehen, heriotzaren eta honek dakarren bi mun-duen (hilena eta biziena) arteko harremanaren inguruko lan etnografiko sakona da. Hala eta guztiz ere, Anuntxi Arana, bere lanetan ohikoa izaten den bezala, antropologian adituak ez diren irakurleentzako liburu aproposa idazten gai izan da.

Etnografia disziplinaren arrastoa argi eta garbi ageri da, adibidez, egileak erabilitako bibliografian. *Hilak gure artean* liburua, teorikoki erlijioaren antropologia eta antropologia politikoaren lan klasikoek kokatzen dute, Georges Balandier, James Frazer edo Maurice Godelieren lanen aipamenek erakusten duten moduan. Liburuaren marko teorikoan argiki egiaz-tatuko den moduan, besteren artean, Claude Levi-Straussen ikuspegi estrukturalista eta Van Gennepen ikuspegi funtzionalista nagusi dira, eta honen ondorioz azken hauen lanen presentzia agerizkoa da ere bai. Dena den, bibliografiari dagokionez, liburu honen benetako indarra euskal kultura aztergai dituzten lanetan dago. Esan bezala, Anuntxi Aranak kontu handiz jasotzen ditu euskal geografiako ipuin, kondaira, mito eta ospakizun ezberdinak az-tergai dituzten ikerlanak. Aipatzekoak dira noski, euskal heriotzarenak ere bai. Gainera, eus-kal kulturaren aspektu hau aztergai dituzten lanak jasotzerakoan, irizpide historikoa ondo baneratu du lan klasiko nahiz garaiakide ugari erabiliz.

Bibliografiaz gain, ikerlan etnografiko baten aurrean gaudela erakusgarri dira testuan zehar jasotzen diren lehen mailako testigantzak eta irudiak ere. Egileak zorroztasun meto-dologikoari jarraituz, defendatzen dituen ideia guztiak irudikatzen dituzten hitzez hitzeko tes-tigantzak jasotzen ditu. Batzutan beste antropologo batzuen testigantzak dira, bestetan egilearen landa lanetik jasotakoak. Egunkarietako berriak ere ageri dira eta guztiak batera ikergaiaren inguruko ikuspegi transkulturala, diakronikoa nahiz sinkronikoa eskaintzen dute.

Horretaz gain, Aranak bere argudioak eusteko testigantzak ezezik, irudiak eta argazkiak ere erabiltzen ditu maiz.

Saiakeraren izaera etnografikoa aipagarria izanik, esan bezala egileak ez du marko teorikoa guztiz erantzi, eta hitzaurrea erabili du bere ikergaiaren funtsa antropologikoa jorrazteko. Atal honetan, egileak modu labur eta eraginkor batean, bere ikergaia, helburua eta lanaren testuinguru teorikoa azaltzen ditu. Liburuan zehar horrenbeste adibide, aipu eta testigantzen artean analisi teoriko gehiagoren falta igartzen da batzuetan, baina edozein kasuetan hasieratik hitzaurrean bertan jasotzen den hori oso egokia eta funtsezkoa da beranduago datorrena ulertzeko. Ikuspegi sinboliko eta estruktural-funtzionalista batean kokatuta dago lana eta begibistan hilekin harremana ez dituzten ospakizun askoren sinboloen izaera polisemikoari arreta jarritz gero, benetan mundu horrekin lotura badagoela ondoriozta daiteke. Bestalde, ospakizunen eta kondairen funtzio soziala Aranaren aburuz, hilen etorrerak sortzen dituen hangoen eta hemengoen arteko hartu emanak gure mundutik hurbil daudela adieraztea da.

Hitzaurrean ikergaia teorikoki kokatu eta gero, edo egileak dion moduan, liburuaren ikergaiari dagokionez, “zer den eta zer ez den” azaldu eta gero, edukien garapena lau kapituluetan zehar egiten du. Atalburuen mamiari erreparatuz, hauek, bi bloketan sailkatu daitezke. Lehenengo bi kapituluetan hilak, hilen mundua eta hilen agerpenak zer diren, nola ematen diren eta horien inguruan dauden adibide anitz jasotzen dira. Hurrengo bietan berriz, ikuspegi transkultural batetik abiatuz hilen inguruko kondaira eta ospakizun ugari jasotzen dira.

Hilak eta hilen mundua kapituluari heriotzaz mintzatzen da Anuntxi Arana. Heriotzak bizi direnak hunkitzen ditu, eta leku handia hartzen du jendeen gogoan, bizi sozialean eta baita, liburuan zehar ikusi daitekeen moduan, ahozko tradizioan ere. Heriotzaz dolutzea gomendatua den arren, beldurra adieraztea berriz ez, izan ere beldur horrek askotan superstitzioa dakar. Hilenganako beldur hau, egilearen aburuz, liburuan zehar heriotzaren inguruan jasotzen diren badaezpadako neurri guztien zergatia da. Etxeko teila bat kentzea, gorpua garbitzeko ura kontu handiz tratatzea, hilaren arlopekin berdinean egitea, bidegurutzetan harantz joateko seinaleak egitea, ate ondoan su txikia piztea, gorpuk oinak aurrera daukatela eramatea edo ahoz behera lurperatzea dira Aranak jaso izan dituen ohitura batzuk. Kapitulu honetan argudiatzen den moduan, neurri guzti hauen lehen xedea, hilen joatea erraztea da, beste mundurako bidea zabalduz eta bertan haien ongizatea segurutzen ahaleginduz, bere lekuan bakan egonda itzultzeko uzia kenduz. Badaezpadako neurriak hartu arren, hilak maiz etortzen dira laguntza eske eta orduan hartuko diren irtenbideen helburua bisita horiek kontrolatzea izango da.

Zenduak laguntza eske datozela jakiterakoan jendeek mezak, otoitzak, argia, janaria edo dirua eskeintzeko ohitura garatu dute erritu eta jaien bitartez. Bizien eskaintza hauen hausnarketa antropologikoa eginez Anuntxi Aranak ondorioztatzen du funtzio bikoitza betetzen dutela; hilak sinbolikoki eta biziak materialki elikatu. Hortaz;

Erreproizitatea hautematen da hilen eta bizien arteko harremanetan, lehenen ongitasuna bigarrenen menpe dela sinesten baita alde batetik, eta bestetik, hilen eskuetan daudela osasuna eta oparotasuna-oparotasun-adarra da, hain zuzen (Arana, 2015: 29-30)

Hilei egindako mesedeak eta haien kultura elkarrei emandako laguntzaren ondorio dira. Otoitzen eta dohaintzen bidez zenduak beste mundura bideratu daitezke. Haien ongizatea lortuz hemengoi bake eman eta mesedeak ekarriz.

Hurrengo kapituluari, *Hilen agerpenak eta arima herratuak* delakoan, egileak agerpenen fenomenoan sakontzen du. Oraingoan noizbehinkako agerpenetaz mintzatuko da. Hauek kristautasunak markatuak dira, askotan infernua eta purgatorioa tarteko direlarik. Aurrerago berriz, data finkoetan ematen diren agerpenetaz, kutsu paganoa dutenak, ihardu liburuak. Noiz, non, nor eta nori? Galdera hauei erantzuna emateko asmoz, adibide etnografiko ezberdinak aztertzen ditu egileak eta hauen azterketa eginez, joera orokorrak ondorioztatzen ditu; gauetan eta hilerrien inguruan, bidegurutzetan, bekatu egin duten tokian edo

zoritarreko tokian. Agertzeko joera handiagoa dute hil orduan zerbait zor edo hartze dute-nek ere, ahaideei edo adiskideei falta duten hori eskatzera hurbilduko zaizkiolarik. Baina baita goizegi hil direnak, bortizki hil direnak nahiz ehorzketa erriturik izan ez dutenak. Azken egoera hauek arima hauen herratzea ekarri dezakete.

Agerpenen asunto honekin lotua, hilen azalpenetaz ohartzeko moduetaz informatzen du Aranak. Bertan, zentzumenek hartzen duten garrantzia antzeman daiteke. Baliteke hilak ikustea, eta orduan haien itxuragatik hil berri ezagun edo ezezagun baten aurrean gaudela ondorioztatzea. Lehenengoak zendu zireneko adinean eta tankeraz agertuko dira eta besteak berriz, animalia, itzal, bultzo, su edo argi itxurarekin. Baina ikusi ezezik, hilak ere usaindu eta entzun daitezke. Olio usaina izan omen da kultura askotan hilen presentzia adierazi due-nak. Hil azantzagile eta herotsegileak beraien presentzia zaraten bitartez adierazten dute.

Egileak lehenago aipatzen duen moduan, agerpen hauek guztiek jendearengan era-gin dezaketen beldurraren ondorioz, mito eta kondaira asko sortu dira belaunaldi batetik bestera gai honen inguruko irakaspenak esleitzeko asmoz. Orokorrean, kontakizun guzti hauen zeregina norberak arima herratuekin izan duen esperientzia eta egoera horren kon-ponbidea kontatuz eta errepikatuz, mezu didaktikoa zabaltzea da; agerpenak nola ekidin eta haien aurrean nola jokatu irakasten dutelarik. Baina irakaspen hauek ez dira eraginkorrak izango lehenago agertutako hilen sailkapen egokia egin ez bada. Sailkapen hau Elizaren era-ginez izan da, eta haren arabera badira purgatorioko parte oneko hilak eta purgatorioko parte txarrekoak edo infernukoak. Edozein kasutan, *garrantzitsua da banaketa hau ongi egj-tea, horren arabera jokatu behar baita agerpenen aitzinean* (Arana, 2015:48).

Esan bezala, hirugarren kapitulutik aurrera Anuntxi Aranak hilen agerpenekin zeriku-sia dituzten jai eta ospakizun ugari jorratzen ditu. Hauek guztiak dira finkoetako agerpen ins-tituzionalizatuak liratzeko zeintzuk kutsu paganoa duten. Urteko sasoi guztietan izaten dira mota honetako ospakizunak. Neguko aipagarriena Gabonak dira, hiltzea eta berpiztea iru-dikatzen dituzten erritu ezberdinez osatuak daudelarik. Lehenago, azaroan, Domu Santu, Hilen Eguna eta Halloween ditugu. Inauteriko mamuek berriz hilak dakartzate burura, mas-karak hilen oinordekoak liratzeko nolabait. Udaberrian berriz, Aste Santua eta Pazkoa eta udan, Donibane. Aipatutako jai eta ospakizun guztiek, beraien izaera propioa dute baina baita amankomuneko elementuak ere. Jai hauetan eskeak egiten dira eta haur edo gazte eskaleek koplak errepikatuz haien nortasuna eta xedea aldarrikatzen dituzte maiz. Batzutan zaila egiten da ulertzea zergaitik Anuntxi Aranaren aburuz, haur eskale hauek hilen ordezkariak diren. Kapituluaren amaieraldean lehen aztarna ematen digu baina hurrengoaren hasieran mintzatuko da esplizituki erlazio honen inguruan. Hilak dira baztertuenen artean baztertuenak. Haien ordezkariak bizien munduan gizartean guztiz integratuak ez daudenak izan behar dira, hala nola, behartsuak, haurrak, gazteak eta emakumeak, besteren artean. Horrexegatik, eskeen eta eskaintzen bitartez ordezkari hauek materialki elikatuz jendeek zen-duak sinbolikoki elikatzen ari direla uste dute. Erritu hauen zentzu praktikoa aintzakotzat hartuz hauek tokiko ekonomian eragin handia izan dutela pentsa daiteke. Baina hori baino garrantzitsuagoa oraindik, eskeen atzean dohainaren legea legoke. Anuntxi Aranak orduan dohainaren legearen izaera sozializatzailea aipatzen du, eta horren arabera, eske errituetan ematea badaezpadako egitate soziala litzateke agian zenduarekin zor bat kitatzearekin lotura lukeena. Ezin da ahaztu ere, hilei eskatzen dutena eskaintzen ez bazaie hauek bere desa-dostasuna adierazi dezaketela. Hasieran aipatu den bezala, egoera horrenganako beldurrak, erantzun mota hauen lehen sustatzailea litzateke.

Herri siniskeriak dion moduan, heriotzak ez ditu harreman sozialak eteten. Errealita-tean bi munduak elkarren hurbil daude, eta haien arteko komunikazioa posible egiten due-nak eskaleen eta emailen arteko hartuemanak liratzeko. Hauxe da, hain zuzen ere, azken kapituluaren izenburua. Lehen aipatutako erritu eta ospakizun guztiek bi munduen arteko adiskidetze harremanak sustatzen dituzte, eta testuinguru horretan garrantzi berezia har-tzen dute elikagaiek, bai zenduei eskeintzen zaizkienak, nahiz biziak jaten dituztenak ere. Mo-dernizazio aurretik, inautegiak bezalako jai orgiastikoek, lege hausleak, beste funtzio sozial bat bazuten ere. Aginte soziala hankaz gora jarritz, egun batez gizarte egitura hausteko balio


zuten. Horrekin lotuta, kontrol sozialerako erabiltzen ziren ere bertan abestutako kopia askok auzokideen bizitzaren gaiak jorratzen baizituzten. Erritu hauetatik ondorioztatutako kaosa, ospakizunaren amaierarekin batera amaitzen zen jarraian kosmosa edo bizitzaren eta ordenaren berpizkundea itzuliz. Logika zikliko honi esker, iraultza asko ekiditu izan dira, ezberdintasun soziala pairatzen zutenek (hilen ordezkariak hemen) protesta egiteko eta mendekatzeko aukera baitzuten.

Jai eta erritu guzti hauen bilakaerari erreparatuz haien funtzio soziala eraldatu dutela antzeman daiteke. Sineste hauek guztiak gizarte tradizionalan presentzia handiagoa izan arren, gaur egun ere beraren zirritu ugari ageri zaizkigu:

Industria osteko xahutze intentsiboan ez bada gehiago zentzurik, mentzuraz zer edo zer gelditu da kontzientziaren txoko batean. Ez soilik eskeen mozinak justizia gabeziak doi bat konpentsatzeko erabiltzen direnean, baizik eta hilen oroitzapena igartzen delarik Gabon gaueko ospakizunetan, eta baliteke horren ahanztura bera izatea jaiari egozten zaion melankoliaren zio ez aitortua, haurren eta oparien presentziak arindua (Arana, 2015: 123)

Hilak gure artean irakurri eta gero, zaila egiten zaio irakurleari heriotza bukaera dela pentsatzeak. Horren orde, mundu berri batekiko erlazio aberats eta sakonen hasiera bilakatu daiteke. Anuntxi Aranak idatzitako liburu honi darraikionez, bizitza gizatiarra begibistan duguna baino askoz zabalagoa da. Heriotza, honela ulertua, beste nonbaiten bizi diren zenuekin erlazio sozialak izaten jarraitzeko giltza da.

Ixone Fernandez de Labastida Medina



GONZÁLEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, José; ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele
La “otra industrialización” del País Vasco. Las pequeñas y medianas ciudades: capital humano e innovación social durante la primera industrialización

Leioa : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.
 Servicio Editorial, 2015
 406 p. ; 24 cm
 ISBN: 978-84-9082-146-6

La otra industrialización: un debate abierto

Leer el libro *La “otra industrialización” del País Vasco. Las pequeñas y medianas ciudades: capital humano e innovación social durante la primera industrialización* (Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, Bilbao, 2015) supone un ejercicio histórico y analítico sobre las diversas trayectorias que ha tenido una parte de la sociedad vasca en relación a la industria y la tecnología. Esta investigación ha sido elaborada por dos profesores y una profesora de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Manuel González Portilla, José Urrutikoetxea Lizarraga y Karmele Zarraga Sangroniz –por orden de firma– quienes ya tienen experiencia y diversas publicaciones en temas relacionados con el libro mencionado.

La obra profundiza en los cambios que se vivieron entre los años 1860 y 1930, época de la primera industrialización, comparando dos espacios geográficos diferenciados.